GORABIDE
ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

boletín / aldizkaria
# berriak

NOVIEMBRE 2009 | 2009ko AZAROA
Nº 184 Zk.

Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | Fax: 94 421 93 84
gorabide@gorabide.com | www.gorabide.com



theWeek Astea la Semana 09

Zientzia, Teknologia, Berrikuntza, Kalitatea eta Bikaintasunaren Astea

# Gorabideko gaitasunen araberako kudeaketa eredua, Astea 09n

# El modelo de gestión por competencias de Gorabide, en la Semana 09

Semana de la Ciencia, Tecnología, Innovación, Calidad y Excelencia




# El modelo de gestión por competencias de Gorabide se presenta en la Semana 09

***Este año, en el que coincide la Semana Europea de la Calidad con la Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación, supone la tercera participación consecutiva de la asociación en este tipo de encuentros, dirigidos a divulgar experiencias de calidad en la gestión***

El viernes 13 de noviembre, tendrá lugar la jornada *Gestión por competencias: el camino de qué al cómo*, organizada por Gorabide dentro de la celebración conjunta de la Semana Europea de la Calidad y de la Semana de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación. Será en el salón de actos de Bolunta (c/ Ronda frente al nº 5, 2ª planta - Bilbao), desde las 10:00 hasta las 13:30 horas.

El encuentro servirá para presentar el modelo de gestión por competencias como base del desarrollo de las personas en entidades como la nuestra, orientadas a mejorar la calidad de vida de otras personas. Este es el tercer año consecutivo en el que la asociación participa en los actos coordinados por Euskalit (Fundación Vasca para la Excelencia), que en esta ocasión lo hace de la mano de Innobasque (Agencia Vasca de la Innovación).

## Tres ponencias

El acto será presentado por Juan María Aburto, diputado foral de Acción Social, y Víctor Iturburu, presidente de Gorabide. El experto en la aplicación de la gestión competencial Mario Bilbao, director de Recursos Humanos de Euskaltel, explicará las claves del modelo. Por su parte, Jacob Gil, director de Recursos Humanos de Gorabide, desgranará la experiencia en el diseño e implantación del modelo de gestión por competencias. Un proyecto que definirá las capacidades clave para el mejor desempeño de cada profesión, identificando las habilidades, actitudes, conocimientos y valores de las personas que formamos Gorabide y vinculándolas con las necesidades de las personas usuarias.

La jornada concluirá con *La calidez de la calidad en la relación de ayuda*, la intervención de Jesús Castanedo, coordinador de Goiztiri, una entidad con amplia trayectoria en mejorar la calidad de vida de las personas en los ámbitos sociales y laborales.

> LECTURA FÁCIL
>
> Dentro de la Semana de la Calidad, Gorabide va a explicar cómo conseguir el mejor desarrollo profesional de sus trabajadores y trabajadoras para que den la mejor respuesta a las necesidades de las personas usuarias.



En una de las ponencias del año pasado, se explicó el Proyecto de Desarrollo de la Ética en Gorabide



Iazko jardunaldien inaugurazio ekitaldian Gizarte Ekintzako foru diputatua egon zen




Kalitatearen Astearen barruan, Gorabidek azalduko du zelan lortu bertako langileen garapen profesionalik onena, erabiltzaileen beharrizanei ahalik eta erantzunik onena eman diezaieten.

IRAKURKETA ERRAZA

# Gorabideko gaitasunen araberako kudeaketa eredua Astea 09n aurkeztuko da

***Kalitatearen Europar Astea eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astea batera ospatuko diren honetan gure elkarteak hirugarren aldiz hartuko du parte kalitatezko kudeaketako esperientziak ezagutzera emateko asmoz antolatu ohi diren topaketa hauetan***

Gorabidek antolatuta, azaroaren 13an, barikuan, jardunaldi bat egingo da *Gaitasunen araberako kudeaketa: zer egin eta zelan* izenburupean, Kalitatearen Europar Astearen eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Astearen barruan. Topaketa Boluntako ekitaldi aretoan izango da (Erronda kalea 5. zenbakiaren aurrean, 2. solairua, Bilbo), 10:00etatik 13:30era arte.

Gaitasunetan oinarritutako eredua aurkeztuko dugu, gurea bezalako erakundeetan, hau da, beste pertsona batzuen bizi kalitatea hobetzera bideratutako erakundeetan, pertsonak garatzeko eredu egokia delakoan. Aurtengoa kontatuta gure elkarteak hirugarrenez hartzen du parte Euskalitek (Bikaintasunerako Euskal Fundazioa) koordinatutako ekitaldi hauetan. Aurten, Innobasque (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) ere badabil Euskalitekin batera koordinazio lanetan.

## Hiru hitzaldi

Juan María Aburto Gizarte Ekintzako foru diputatuak eta Víctor Iturburu Gorabideko presidenteak aurkeztuko dute ekitaldia. Mario Bilbaok, Euskalteleko Giza Baliabideetako zuzendaria eta gaitasunen araberako kudeaketaren aplikazioan aditua denak, ereduaren gakoen berri emango du. Bestalde, Jacob Gilek, Gorabideko Giza Baliabideetako zuzendariak, gaitasunen araberako kudeaketa eredua diseinatzen eta ezartzen izan dugun esperientzia azalduko du. Proiektuak lanbide bakoitza ahalik eta ondoen betetzeko funtsezkoak diren gaitasunak definituko ditu; Gorabide osatzen dugunon trebetasunak, jarrerak, ezaguerak eta balioak identifikatuko ditu eta horiek denak erabiltzaileen beharrizanekin lotuko ditu.

Jardunaldiari amaiera emateko, Jesús Castanedo Goiztiri elkarteko koordinatzaileak *Kalitatearen berotasuna laguntzako harremanetan* izeneko hitzaldia emango du. Jakina denez, Goiztirik ibilbide luzea egina du gizarte eta lan arloetan pertsonen bizi kalitatea hobetzen.

# Una nueva ley permite complementar las pensiones más bajas con la *renta básica*

### *El Servicio SAIOA está a disposición de las familias para revisar el derecho a la Renta de Garantía de Ingresos contemplada en la Ley para la Garantía de Ingresos y la Inclusión Social*

La nueva Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social (18/2008, de 23 de diciembre), que ha entrado en vigor este año, regula las prestaciones económicas y los instrumentos orientados a prevenir o paliar situaciones de exclusión y a facilitar la inclusión de quienes carezcan de recursos suficientes. En ese sentido, la Renta de Garantía de Ingresos complementa las pensiones más bajas de invalidez, jubilación o viudedad, tanto contributivas como no contributivas.

Desde el Servicio SAIOA de Gorabide, recuerdan que es necesario comprobar si se reúnen las condiciones necesarias para solicitar esa prestación, que se tramita en los servicios sociales de base del ayuntamiento donde esté empadronada la persona susceptible de percibirla.

#### Duración y exclusiones

La Renta de Garantía de Ingresos se concede por dos años, y se renovará por el mismo tiempo mientras se mantengan las condiciones para el acceso a la prestación. De entrada, quedan excluídas las personas usuarias de servicios residenciales permanentes que estén financiados con recursos públicos. En el resto de los casos, es necesario estudiar la situación particular de cada posible solicitante.

Lectura Fácil

Gracias a una nueva ley, las personas que cobren pensiones bajas y no estén en una residencia pública pueden pedir una renta complementaria. El Servicio SAIOA informa de lo que hay que hacer para saber si se puede solicitar.



# Lege berri bati esker, pentsio pentsiorik txikienak *oinarrizko errenta*rekin osatu daitezke

### *Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legeak Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta ezarri du. Familiek SAIOA zerbitzura jo dezakete horretarako eskubidea duten aztertzeko*

Aurten indarrean sartu den Diru sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Legeak (18/2008, abenduaren 23koa) behar den beste diru ez duten pertsonak gizartetik baztertuta ez geratzeko bideratzen diren diru laguntzak eta baliabideak arautzen ditu. Helburu horrekin, Diru sarrerak bermatzeko Errentak baliaezintasuneko, erretiroko edo alarguntzako pentsiorik txikienak osatzen ditu, bai kotizaziopekoak bai kotizazio bakoak.

Gorabideko SAIOA zerbitzuak ohartarazten du lehenengo begiratu behar dela laguntza hori eskatzeko behar diren baldintzak betetzen diren. Laguntza eskatzeko moduan dagoenak erroldatuta dagoen udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuetan tramitatu behar du eskabidea.

#### Iraupena eta salbuespenak

Diru sarrerak bermatzeko Errenta urte birako ematen da eta beste horrenbeste denborarako berrituko da, laguntza hartzeko baldintzak betetzen jarraituz gero. Baliabide publikoekin finantzatutako egoitzetan daudenek ezin dute honetariko laguntzarik hartu. Gainerako kasuetan, banan-banan aztertu behar da laguntza eska daitekeen ala ez.

Irakurketa Erraza

Lege berri bati esker, pentsio txikiak dituen jendeak, egoitza publiko baten egon ezean, errenta osagarria eska dezake. SAIOA zerbitzuak informazioa ematen du, errenta osagarri hori eska daitekeen jakiteko.

# Es posible cobrar la prestación familiar por hijo o hija a cargo aunque tenga ingresos propios, si no superan el salario mínimo interprofesional

## *El Servicio SAIOA recomienda estudiar si las condiciones particulares de cada familia se ajustan a las contempladas por la ley de medidas en materia de Seguridad Social*

La prestación familiar no contributiva que establece Ley General de la Seguridad Social por cada hijo o hija a cargo o menor en acogida, con una discapacidad igual o superior al 65% no se pierde cuando la persona con discapacidad intelectual comienza a trabajar en un centro especial de empleo, siempre que su sueldo sea inferior al salario mínimo interprofesional (624 euros en 2009), tal y como establece la Ley 40/2007, de 4 de diciembre, de medidas en materia de Seguridad Social.

Por eso, el Servicio SAIOA recuerda la importancia de revisar las circunstancias de las familias que percibían esa asignación, en los casos en los que la persona con discapacidad intelectual haya comenzado a trabajar en un centro especial de empleo y sus ingresos anuales no superen el 100% del cómputo anual del salario mínimo interprofesional.

### Casos de incapacidad judicial

Además, conviene recordar que otra de las modificaciones de la ley equipara la incapacidad judicial a una discapacidad del 65%. Y el Servicio SAIOA ha constatado que esto ha servido para que varias familias de Gorabide, con familiares con discapacidad inferior a ese porcentaje, pero que tienen la incapacidad judicial, también han accedido a la prestación no contributiva por hijo o hija a cargo al equipararse su discapacidad al 65% y cumplir el resto de requisitos.

LECTURA FÁCIL

Si una persona con una discapacidad intelectual del 65% empieza a trabajar en un centro especial de empleo y sigue viviendo con su familia, pueden seguir solicitando la prestación familiar por hijo o hija a cargo, si su sueldo es menor que el salario mínimo interprofesional.

# Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko laguntza kobratu daiteke, beraren diru sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldatara heltzen ez badira

## *SAIOA zerbitzuaren ustez, komeni da aztertzea ea familia bakoitzaren egoera Gizarte Segurantzaren arloko neurrien legean ezarritako baldintzetan sartzen den*

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak laguntzako familia prestazioa ezarri zuen gurasoen ardurapean dagoen seme-alaba bakoitzeko edo abegiko adingabe bakoitzeko, % 65eko edo gehiagoko ezgaitasuna edukiz gero. Ba, prestazio hori ez da galtzen adimen urritasuna duen pertsona enplegu zentro berezi batean lanean hasten denean, beraren soldata lanbide arteko gutxieneko soldata (624 euro 2009an) baino txikiagoa bada, Gizarte Segurantzaren arloko neurrien abenduaren 4ko 40/2007 Legeak ezarri duenaren arabera.

Hori dela eta, SAIOA zerbitzuak gogorarazten digu garrantzi handikoa dela prestazio hori hartzen zuten familien egoera aztertzea adimen urritasuna daukan pertsona enplegu zentro berezi batean lanean hasi bada eta beraren urteko diru sarrerak ez badira lanbide arteko urte oso bateko gutxieneko soldata baino handiagoak.

### Ezintasun judizialeko kasuak

Lege horren beste aldaketa bat ere ekarri behar dugu gogora: lege berriak ezintasun judiziala % 65eko ezgaitasunarekin parekatzen du. SAIOA zerbitzuak baieztatu duenez, horri esker, Gorabideko familia batzuek, ehuneko hori baino ezgaitasun txikiagoa duen senide bat edukita, senide horrek ezintasun judiziala duenez, euren ardurapeko seme edo alabagatiko laguntzako prestazioa hartzen dute, seme edo alaba horren ezgaitasuna % 65eko ezgaitasunarekin parekatu delako eta gainerako baldintzak betetzen dituztelako.

IRAKURKETA ERRAZA

% 65eko adimen ezintasuna duen pertsona bat enplegu zentro berezi batean lan egiten hasten bada eta familiarekin bizitzen jarraitzen badu, etxekoek jarraitu dezakete euren ardurapeko seme-alaba horrengatiko familia prestazioa hartzen, haren soldata lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa bada.

***Joseba Alberdi, autogestor de Gorabide, presentó en formato ponencia el blog estolohehechoyo.com, en el que participa como trabajador de Lantegi Batuak***

# 190 autogestores comparten sus experiencias en Valladolid

Unas 190 personas con discapacidad intelectual de todas las comunidades autónomas y Portugal se reunieron en el I Encuentro de Buenas Experiencias de Autogestores, que se celebró en octubre en Valladolid. Allí, Joseba Alberdi, autogestor de Gorabide, ofreció una ponencia sobre el blog estolohehechoyo.com, en el que participa como trabajador de Lantegi Batuak.

Explicó que se trata de un proyecto de comunicación con el que las personas con discapacidad intelectual se dan a conocer, y con el que enseñan a la sociedad que tienen una vida normal, como el resto, que también trabajan, e incluso que son capaces de utilizar medios como internet para expresarse.

Y, para finalizar, hizo un llamamiento a todos los autogestores: "*Hay que seguir saliendo en los medios de comunicación; haciendo más cosas interesantes para que nos vean por televisión, radio, revistas…*".

LECTURA FÁCIL

190 autogestores de todas las comunidades autónomas y Portugal se juntaron en Valladolid para explicar qué hacen. Joseba Alberdi, de Gorabide, habló sobre el blog de Lantegi Batuak estolohehechoyo.com, y animó a seguir haciendo más cosas interesantes.




***Joseba Alberdi Gorabideko autogestore eta Lantegi Batuakeko langileak estolohehechoyo.com bloga aurkeztu zuen ponentzia eran***

# 190 autogestorek euren bizipenak konpartitu dituzte Valladoliden

Urrian Autogestoreen Esperientzia Onen I. Topaketa egin zen Valladoliden eta adimen urritasuna duten 190 lagun elkartu ziren bertan, autonomia erkidego guztietatik eta Portugaletik etorrita. Joseba Alberdi Gorabideko autogestoreak estolohehechoyo.com blogari buruzko hitzaldia eman zuen; izan ere, berak blog horretan hartzen du parte Lantegi Batuetako langilea den aldetik.

Azaldu zuenez, komunikazioko proiektu bat da, adimen urritasuna duten pertsonek euren berri emateko erabiltzen dutena. Horren bitartez, besteen moduko bizimodu normala daukatela erakusten dute, lan egiten dutela eta internet moduko bitartekoak erabiltzeko gai direla komunikatzeko.

Eta, amaitzeko, deia luzatu zien autogestore guztiei: "*Komunikabideetan agertzen jarraitu behar dugu; gauza interesgarri gehiago egiten, telebistan, irratian, aldizkarietan... ikus gaitzaten*".

IRAKURKETA ERRAZA

Autonomia erkidego guztietako eta Portugaleko 190 autogestore Valladoliden elkartu ziren zer egiten duten azaltzeko. Joseba Alberdi Gorabidekoak Lantegi Batuakeko blogari buruz hitz egin zuen, eta gauza interesgarri gehiago egiten jarraitzeko adorea eman zien.

# El Servicio de Viviendas presenta su organización en red en las Jornadas de Interés Social de Burgos

Loli Barriga, coordinadora de Atención Directa y Personal del Servicio de Viviendas de Gorabide, participó el 15 de octubre en la mesa redonda *Experiencias hacia la vida independiente*, dentro de las IV Jornadas de Interés Social de Burgos.

En su intervención *Modalidades de vivienda para una vida independiente*, expuso las claves del modelo de organización en red que presta los apoyos necesarios a los pequeños grupos de convivencia, más autónomos y semi-independientes, cuando no hay presencia del monitor o la monitora de referencia.

Otras ponencias trataron la vida en pareja de las personas con discapacidad intelectual o experiencias en las que comparten piso jóvenes con y sin discapacidad.

### Foro para el debate

Estas jornadas, que cuentan con la colaboración de la Junta de Castilla y León, tienen como objetivos crear foros de debate en el ámbito de la discapacidad, mostrar diferentes sensibilidades y puntos de vista en el trabajo dentro de este campo y promover las actitudes que favorezcan mayor autodeterminación de las personas con discapacidad.

LECTURA FÁCIL

La forma de organizar las viviendas de Gorabide ha sido uno de los temas que se han explicado en unas jornadas sobre discapacidad que se han celebrado en Burgos.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabideko etxebizitzak antolatzeko modua izan da Burgosen ezgaitasunari buruz egin diren jardunaldietan azaldu diren gaietariko bat.

# Etxebizitza Zerbitzuak bere sareko antolaketa azaldu zuen Burgoseko Gizarte Intereseko Jardunaldietan

Loli Barrigak, Gorabideko Etxebizitza Zerbitzuko Arreta Zuzen eta Pertsonalaren koordinatzailea, *Norbere kasako bizimodurantzako esperientziak* izeneko mahai-inguruan hartu zuen parte urriaren 15ean, Burgoseko Gizarte Intereseko IV. Jardunaldietan.

*Norbere kasako bizimodua egiteko etxebizitza motak* izenburuko hitzaldian, sareko antolaketaren nondik norakoak azaldu zituen. Eredu honek behar dituzten laguntzak ematen dizkie modu autonomoagoan eta erdi independentean bizi diren talde txikiei, erreferentziako monitorea ez dagoenean. Beste hitzaldietan beste gai batzuk jorratu ziren, hala nola, adimen urritasuna duten pertsonen bikote bizitza eta ezgaitasuna duten eta ezgaitasunik ez duten gazteak pisu berean elkarrekin bizitzea.

### Eztabaida foroa

Jardunaldiok Gaztela eta Leongo Juntaren laguntzaz egiten dira eta helburu hauek dituzte: ezgaitasunaren arloan eztabaida foroak sortzea, arlo horretako lanean dauden sentiberatasun eta ikuspuntu desberdinak agertzea, eta ezgaitasunen bat duten pertsonen autodeterminazio handiagoa bultzatuko duten jarrerak sustatzea.

## LABURRAK BREVES

### Estudios sobre la Ley de Dependencia y los servicios de apoyo

Gorabide participa en un estudio del Ararteko sobre la aplicación de Ley de Dependencia en la CAPV, y en un análisis de Fundación EDE y Euskarri S.Coop. sobre los servicios de ayuda a domicilio y acompañamiento en el Gran Bilbao, subvencionado por el Gobierno Vasco.

### Menpekotasunaren Legeari eta laguntza zerbitzuei buruzko ikerlanak

Gorabidek bi azterlanetan hartzen du parte: Menpekotasunaren Legea EAEn aplikatzeko Arartekoak martxan jarritako lan batean, eta EDE Fundazioa eta Euskarri S. Coop., Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta, Bilbo Handiko etxeko laguntza zerbitzuen gainean egiten ari diren azterketa batean

### Congreso sobre educación inclusiva

Del 21 al 23 de octubre, la Universidad de Salamanca acogió la Conferencia Mundial en Educación Inclusiva, para evaluar los progresos obtenidos con la Convención sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad, y generar una agenda para renovar las acciones en los próximos años.

### Hezkuntza inklusiboari buruzko biltzarra

Urriaren 21etik 23ra bitartean, Salamancako Unibertsitatean Hezkuntza Inklusiboari buruzko Munduko Biltzarra egin zen, Ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan izandako aurrerapausoak ebaluatzeko eta datozen urteetako ekintzak berritzeko agenda sortzeko.

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a dar apoyo a las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y a sus familias, contribuyendo así a la mejora de su calidad de vida y a la promoción de una sociedad más justa y cohesionada en su diversidad.

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, adimen urritasuna duten bizkaitarrei eta haien familiei laguntzera bideratua, bizi kalitate hobea izan dezaten eta gizartea, bere aniztasunaren barruan, zuzenagoa eta kohesionatuagoa izan dadin lortzeko.

# Este año, más postales navideñas de Gorabide

# Aurten berriro Gorabideren Gabonetako postalak



Los trabajos del año pasado demostraron la capacidad de las personas que participaron
Iazko lanek argi erakutsi zuten parte hartzaileen gaitasuna

Como ya hicimos el año pasado, estas navidades volveremos a tener nuestras propias postales para felicitar las fiestas. Las personas usuarias de las residencias, centros de día y clubes de tiempo libre ya han empezado a crear varios modelos, de los que se elegirá uno por cada servicio. En el Berriak de diciembre, reproduciremos las tres postales seleccionadas, para desearos unas felices fiestas desde estas páginas.

Iazko moduan, Gabon honetan berriro aterako ditugu gure posta txartelak Gabonetan zoriontzeko. Egoitzetako, eguneko zentroetako eta astialdiko klubetako erabiltzaileak hasita daude modeloak sortzen. Zerbitzu bakoitzetik bat aukeratuko da. Abenduko Berriak-en, aukeratutako hiru postalak jarriko ditugu, gure orri hauetatik denoi zoriona opatzeko.

# agenda




## noviembre | azaroa

### AGRUPACIONES / ELKARTEAK

**BUSTURIALDEA** — Comisión / Komisio
*Kultur Etxea. Foru Plaza - Gernika*
**Día / Eguna** 11 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:30

**DEUSTO-SAN IGNACIO** — Junta / Batzorde
*Club Solas-Etxe. Luzarra, 24 - Deusto*
**Día / Eguna** 3 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 19:30

**DURANGALDEA** — Comisión / Komisio
*Casa Social. Astarloa, 1-3 - Durango*
**Día / Eguna** 30 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:00

**ERMUA** — Junta / Batzorde
*Aldapa, 2-bajo A/etxabe A - Ermua*
**Día / Eguna** 2 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 19:30

**MUNGIALDEA** — Comisión / Komisio
*Atxurizubi, 12 - Mungia*
**Días / Egunak** 3, 10, 17, 24 — **Hora / Ordua** 20:30

**SANTURTZI** — Comisión / Komisio
*Sabino Arana, 20-22 - Santurtzi*
**Día / Eguna** 25 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 19:00

**SESTAO** — Comisión / Komisio
*La Galana, 20-bajo/etxabe - Sestao*
**Día / Eguna** 19 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 17:30

### AUTOGESTORES / AUTOGESTOREAK

**JÓVENES / GAZTEAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º (Bilbao)*
**Día / Eguna** 3 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:00

**ADULTOS / HELDUAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 4 miércoles / asteazkena — **Hora / Ordua** 18:00

**NUEVOS / BERRIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 2 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:00

### FORMACIÓN FAMILIAR / FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**FAMILIAS DE ESCOLARES / ESKOLA-UMEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 17 martes / asteartea — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADOLESCENTES / NERABEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 23 lunes / astelehena — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE JÓVENES / GAZTEEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 12 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE ADULTOS / HELDUEN FAMILIAK**
*Gorabide - Ldo. Poza, 14-2º - Bilbao*
**Día / Eguna** 26 jueves / osteguna — **Hora / Ordua** 18:30

**FAMILIAS DE CHICAS CON SÍNDROME DE RETT / RETT SINDROMEA DUTEN NESKEN FAMILIAK**
*Residencia de Estancias Temporales Ola Ola Aldi Baterako Egotaldietarako Egoitza Goietxa bidea, 18 - Sondika*
**Día / Eguna** 21 sábado / larunbata — **Hora / Ordua** 11:00